

Patrizio Urkizu, euskal letren mandataria, Mitxelena lagun

ELIXABETE PEREZ GAZTELU

Deustuko Unibertsitatea
elixabete.perez@deusto.eus

Bidezko eta beharrezko deritzat eskerrak ematen hasia Patriziok, Patrik, horren berea zuen aldizkari honetan nire ahotsari kanporatzeko aukera eskaintzeagatik.

Monografiko honetan Patrik jorratutakoen gaineko ikerlan akademikoak egoteak lasaiago eta libreago sentiarazten nau Patriren oroitzapenezko lerrootan barrena nire gisa ibiltzeko. Uste horretan, Patri kide, lagunarekin bizi izandako topada batzuen berri eman nahi dut, bion arteko loturaren adierazgarriak direlako baino gehiago Patriren ezaugarri, zaletasun batzuen erakusgarriak direlako. Baina, oroz gain, eta batez ere, Patri Urkizu Sarasua (1946-2014) lezoarraren eta Koldo Mitxelena Elissalt (1915-1987) erreteriarren artekoak ekarri nahi ditut, Patriren ibilbidean (ere) Koldo Mitxelena Euskal Filologia zientifikoaren aita hagitz funtsezkoa izan baitzen. Mitxelenaren hitz batzuek eraman naute, hain zuzen ere, lan honen izenburuan Patri *euskal letren mandataria* izendatzera.

Mitxelenak (1959) «euskal kulturaren mandataria» izendatu zuen Patxi Etxeberria Ibarra ortuellarra (1908-1971), orduan bizilekua zuen Madrilen, 1957an, Minotauro editoriala sortu zuelako. Zuzendu zuen 8 urte labor eta jorietan, euskal kulturarekin era batera edo bestera lotutako liburu garrantzizkoak karrakatu zituen. Julio Caro eta Pio Barojaren, Wilhelm von Humboldten, Antonio Tovarren, Jose Migel Barandiaranen... Koldo Mitxelenaren lanen plazaralekua izan zen Minotauro¹. Ez da atzenezkoa Koldo Mitxelenak —hobeki esan, Luis Michelena— labe horretan egosi zituela *Historia de la literatura vasca* (1960)

¹ Esan dezadan bidenabar, Patrirentzat Minotauroaren gaiak bazuela mamia: «Urtero ohi bezala, El Padre Víctor irakasleak —halaxe deitzen baikenion Víctor García de la Conchari— berriro bildu gintuen Verinesen 1994ko irailaren 14 eta 15ean (...) Nire saiotxoak, Reflexiones sobre el Minotauro Vasco zuen titulua; hasieran labirintoaren zentzuek bi hitz idatzi ondoren (Mircea Eliade, George Neveux...), euskal mundura iraganik, Jon Miranderen poetikaz mintzatu nintzen, bukatzeko esanez Minotauroaren kontrako borrokan ez direla zilegi ez bide guztiak, ez bitartekoak oro, zeren eta Ernesto Sábatok zuzen azpimarratzen zuen bezala, Ya no se puede dudar, después de terribles experiencias: el fin no justifica los medios, y es trágicamente ilusorio perseguir fines nobilísimos con medios innobles» (Urkizu Sarasua d. g.: 29).

eta *Textos arcaicos vascos* (1964), euskal literatura eta filologiaren oinarri eta zimentarri gogoangarriak. Mitxelenak Etxeberriarentzat erabilitako deizioa egokitu nahi izan dut eta Urkizu euskal letren mandatarari bihurtu, euskal literatura munduratzeko ahaleginetan jo eta ke aritzeko xede aitortuak horretaratuta.

Nire Patrirekiko lehen topada 1975-1976 ikasturtean izan zen, orain Koldo Mitxelena izena duen Errenteriako institutuan: 30 urte inguruko lezoar bibotadun hura «Lengua y literatura española» ikasgaiko irakasle genuen BUPEko ikasketa-planean; PNN (Profesor No Numerario) zen —hortaz, orduan, ia-ia halabeharrez, borrokalaria—; euskalduna —euskararen «ekintzaile», «aktibista», oraingo moduan esanda—; ikasle on gertukoa, nahiz eskolan 14-18 urte bitarteko ikasle harrituoi *usted*-ka zuzentzen zitzaigun.

Urteak igarota ohartu naiz, gutako batzuegan behinik behin, Patrik eragina izan duela funtsezko ideia batzuetan: beste batzuen artean, alfabetizazioaren garrantziari begiak zabaldu zizkigun. Euskarak ez zeukan lekurik hezkuntza publikoan eta Patrik eta beste irakasle boluntario batzuek, euskal testuez baliatuz euskaraz alfabetatzen laguntzen ziguten, eskola orduetatik kanpo (Urkizu d. g.: 19).

Errenteriako Institutuan jarraitzen nuen Lengua y Literatura Española deituak irakasten, mintegian Migel Sagues, Mikel Arregi eta beste suertatu zitzaizkidalarik. Euskara oraindik ofiziala ez zen arren, goizero zortziak eta laurdenetatik bederatziak arte irakasten nuen euskara poxi bat dohainik. Elixabete Perez Gaztelu eta Idoia Jauregi izan nituen ikasleen artean. Garbi zegoen etorkizun handiko neskatilak zirela, benetan ikasle zintzo, on eta azkarrek, bat gaur egun Deustuko Unibertsitatean baitago eta bestea Euskadi Irratian lanean.

Euskal testuen bitartez euskaraz alfabetatzera eta, aldi berean, gaztelaniazko literatura klasikoaz dastatzera gonbidatzen gintuen irakasle hark. Ez zen hutsala izan Patriren irakaskuntza, orduan buru batzuek («bata ala bestea»-zaleek) horrela ikusteko gaitasunik ez bazuten ere. Gure buru gazte zurrun xamarrek diferentearekiko errespetua ere ikasi zuten Patrirengandik.

1987an, Deustuko Unibertsitateko Donostiako campusean (EUTG zen hartan) egin genuen topo berriz ere Patrik eta biok: Euskal Filologiako irakasle biok eta, gainera, bulegokideak ere izan ginen. Esku berek eraman gintuzten unibertsitate horretako Filosofia eta Letren fakultatera, Patxi Altuna Bengoetxea (1927-2006) jesuita filologoarenek: Euskal Filologiako lizentziatura amaitu berritan ni (1984ko ekainean) eta, hiru urte geroago, Patri doktore berria. Tesia aurkeztu zuen egunean (1987ko maiatzaren 19an), ekitaldi akademikoa amaitu bezain laster, Altuna tesiko epaimahaikideak Deustuko Unibertsitatean lan egiteko gonbita egin zion Patriri (Urkizu Sarasua d. g.: 22).

Euskal Herriko Unibertsitatean aurkeztuagatik, Deustuko Unibertsitatean argitaratu zuen *Pierre d'Urteren hiztegia: Londres 1715*, 1989an. Bi liburuki behar izan zituen tesiak, ez baitzuen hiztegiaren edizioarekin burutu nahi izan. Pierre d'Urte bere garai-giroetan kokatu, azterketa lexikografiko eta lexikologikoa egin eta beste gairik ere mamitu zuen tesian. Patriren ikerlan honexek, hain juxtu, estreinatu zuen Deustuko Unibertsitatearen publikazio sail berri bat;

Euskal Filologia saila. Altuna begi-zoliak Patriren lan-ildo nagusietako bat hartu zuen hizpidean, liburuaren hitzaurrean; alegia, Patriren testu zaharren bilaketarekiko atxikidura.

Patri Urkizu ezagutzen dutenek badakite munduko txokoren batean aurki daitekeen euskal paper txikienari ere urrundik hartuko diola usaia eta ez diola kupidetsiko, harik eta nola edo hala eskuetara arte (Altuna 1989: 6).

1971ko *Tresora hirur lenguaetakua. Frantzes, Española eta Heskuara* lan goiztiarreko aitzinsolasean aski argi adierazten du Patrik bere langintzaren helburua:

Nuestra intención es la de «iniciar» la publicación de textos clásicos vascos, tarea que necesitaría de la colaboración de todos los estudiosos de la lengua vasca, para formar un bloque compacto de textos fácilmente accesibles para las nuevas generaciones deseosas de estudiar la literatura vasca, un corpus semejante al de la biblioteca de autores clásicos españoles (Urkizu Sarasua 1971).

Altuna irakasleak batu gintuen, esan bezala, eta Altunari eskaini genion Patrik eta biok editatu genuen *Patxi Altunari omenaldia* artikulua-bilduma (Perez-Gaztelu + Urkizu Sarasua 1990). Aipatu Euskal Filologia saileko 5. liburukia izan zen hauxe.

1989an, nire ezina ikusita, Patrik gomendatu zidan eskuartearen nerabilen doktore tesiko ikergaia utzi eta beste bat hautatzeko. Lezoarraren bultzadak, beharrik, errenteriarrarengana eraman ninduen: «Zergatik ez duzu Koldo Mitxelena ikertzen? Gainera errenteriarrak zarete biok».

Egun gutxi geroago erabaki nuen Patriren proposamena neure egitea; egun onean erabaki ere. Halabarrez, 1989ko urriaren 11 zen, Koldo Mitxelenaren heriotzaren 2. urteurrenaren eguna. Koldo Mitxelenaren hizkuntza-normalizazioaren gaineko tesia (1994)² izango zenaren ernamuina Patrirekin izandako solas hura izan zen. Horregatik besterik ez balitz ere (eta ez da horrela), Patriren zordun ikusten dut neure burua. Patxi Altuna izan nuen tesi-zuzendaria.

Patrik Salamancako Unibertsitatean bukatu zuen Filosofia eta Letretako lizentziatura; Filologia Erromanikoko adarra aukeratu zuen (1967-1970). Salamancako Unibertsitateko giroak eta irakasle batzuek errotik bideratu zuten Patrik bazekarren ikermina. Fernando Lázaro eta, jakina, Koldo Mitxelena ezinbestean aipatu beharrak dira.

1970ekoa da Patrik argitaratutako lehen liburua: *Literatura eta kritika* (Lur, Donostia), Lázaroren Literatura kritikako eskolako apunteen bilduma euskara-

² Koldo Mitxelenaren euskara noranahikotzea: aitzindariak, hiztegia eta hizkuntzalaritzako hitz berezituen azterketa (Deustuko Unibertsitatea, 1994). Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/tesiker/koldo-mitxelenaren-euskara-noranahikotzea:-aitzindariak-hiztegia-eta-hizkuntzalaritzako-hitz-berezituen-azterketa/elixabete-perez-gaztelu/deusto.-universidad-de-deusto/facultad-de-filosofia-y-letras/tesis/79>.

tua da (Urkizu Sarasua d. g.: Katalogoa). Irakasle berak gomendatu zion «lantzeko antzertiaren esparrua» (Urkizu Sarasua d. g.: 22), eta Patrik guztiz bereganatu zuen Lázaroren aholkua.

Salamancan sendotu zuen Koldo Mitxelena irakasle erreteriarrekiko (eta honen familiarekiko) harremana. Patrik lizentziaturan ez, baina Larramendi katedran irakasle izan zuen Mitxelena. Patrik autobiografian dioenez, euskal testu zaharrei buruzko ikastaro batean izan zuen Mitxelena irakasle, 1967an. Eta Mitxelenak, hain zuzen, gonbidatu zuen Patri, euskara batua bultzatzeko «arrazoi biologikoa» gorpuzten zuen belaunaldi bereko beste idazle (orduan gazte) batzuekin batera, 1968ko Euskaltzaindiaren Arantzazuko biltzarrera; hots, euskara batua, euskara estandar idatzia, finkatu zen biltzarrera³.

Aipatu berri ditut, bada, Mitxelenaren bitartezko Patriren ibilbideko bi ildo guztiz baitezpadako: euskal testu zaharrekiko atxikidura (maitasuna), eta euskararen estandarizazioaren eta normalizazioaren kezka. Patrik munduratutakoen eta bere biobibliografiako «Argitaragabeen» sailekoen emaitza agerikoak garbi baino garbiago erakusten du Mitxelenak hauspotutako testu zaharrekiko isuria. Bigarren isuriaren erakusgarria bilatzeko, berriz, arrunt urrutira jo beharrik ez dago: institutuko BUPeko ikasle ohiok gara horren lekuko.

Koldo Mitxelenaren eta Patriren arteko loturaren beste mutur batek genero epistolarrera garamatza. Hainbat lan eskaini dizkie gutunei, bai lan argitaratuetan: artikuluak («XVIII. mendeko amodiozko gutun bat», *Egan*, 1-2, 1987, 39-41. or.), itzulpena (Montesquieu, *Persiar Gutunak*, Ibaizabal, 1994), liburuak (*Jon Miranderen gutunak (1948-1972)*, Susa, 1995), *Andima Ibiñagabeitia: erbestetik barne-minez. Gutunak (1935-1967)*, Susa, 2000), bai argitaratu gabee-tan. Patriren azken lan biobibliografikoan, atal berezi batean bildu ditu gutunak (Urkizu Sarasua d. g.)⁴.

Gutunen ildoari jarraituz, ekarri nahi ditut Patri Salamancako Unibertsitateko ikasleak Pariseko unibertsitatean lanean ari zen Mitxelenari 1969an igo-rritako hitzak⁵.

Patri URKIZUK Koldo MITXELENARI (Parisen zelarik)

Salamankatik, 1969-X-15.

Ene maisu Koldo onari, agur!

Baliteke zerbait harriturik gelditzea hau hartzean, vaina nola hitz aspergarriak sobera dagoz, eta joan gaitezen harira zuk beti eskatzen duzun bezala.

Eranegun egon nintzan Pensado jaunarekin tesinarako gai bat bila nahiean eta gutxi gora behera euskerakin zerbait harreman edukiko zuana, ihardetsi zidan zuri galdetzeko eta zuk proposatuko zenduen gaia berak firmatuko lukeala.

³ Ik. «Salamanca Koldo Mitxelenarekin», *Oarso*, 2016, 51, 119-125. or. (Urkizu Sarasua 2016)

⁴ Argitaragabeen sailean kokatu ditu gutunak, nahiz batzuk argitaratuak izan.

⁵ Bere horretan dakartzagu hemendik, 13. or.: <https://patriurkizu.eus/argitaragabeak>

Alde batetik zerorek euskal zatia behatuaz eta txukunduaz eta bestetik berak romanika mamia.

Barkatu zaidazu arren, nire ezjakintasuna eta ugari duten hausardia, hal guztiz ere sure hitzaren zai gelditzen naiz eta behar diren ordu guztiak okalondo mahai gainean sartzeko prest nauzu.

Errespetu handienarekin

Patri Urkizuko

Eskuminak etxekoeri, batipat Rafa eta Barintzat.

Urte batzuk geroago Koldo Mitxelena izan zuen Patrik doktore-tesiko zuzendaria eta emaitza, arestian aipatu bezala, argitaratu gabe zegoen Pierre d'Urteren hiztegiaren⁶ edizioa.

1989an, Errenteriako Udalak Koldo Mitxelena ikerketa-beka sortu zuen. Patri Urkizuk bi ediziotan irabazi zuen: 4. eta 5. edizioetan, 1996koan eta 1998koan, hurrenez hurren.

1996ko proiektu irabaztuna Patriren bi zaletasun sakonen uztardura da: Lázaro irakasleak gomendatutako antzerkigintza⁷ eta Altunak ahotan zuen testu zaharren bilaketa: *Jundane Jakobe Handiaren Trajeria (1634): lehen euskal antzerkia*. Errenteriako Udaleko artxiboaren *Bilduma* aldizkariak urte berean argitaratu zuen⁸. 1998ko proiektu irabazlea, berriz, *Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984)* izan zen, hain zuzen ere. Lan hau ere *Bildumak* argitaratu zuen, 2004an⁹.

Lan honetan Koldo Mitxelenaren Opera Minora lirakeenatarik 236 euskal gutun biltzen, aurkezten eta aztertzen dira. Gehienak argitaragabeak (Jose Maria Satrustegi moldiztegitatu gutxi batzuetaz at) eta Donostiako KM kulturuneko liburutegian hala nola Euskaltzaindikoan aurkituak. Bere tipitasunean, ordea, badute gutun hauek interes berezirik, alde ezkutu bat ezagutzeko, alegia, bai zenbait kultura gertakizunen, bai zenbait libururen eta artikulu-poemaitzulpenen argitaratze aurreko gora beherak argi berriz ikus daitezkeela. *Egan* literatur aldizkariako zuzendari gisara zein nolako lanak burutu zituen, frankismoaren urte zail eta gogortsuenetan, animatzaile eta bultzatzaile moduan, eta irakasle bezala zein era zehatz eta zorrotzean zeramatzan Ikasgai, Biltzar eta Jardunaldiak. Halaber, eta besteak beste, zein irizpide taxuzkoz antolatu

⁶ Hemen eskura daiteke: <https://www.euskadi.eus/web01-aptedok/es/ad62aConsultaWar/tesiadok/getDocument/113/0902967080ec51ba?R01HNoPortal=true>

⁷ «Oroitzen naiz duela urte mordoxxa bat Lázaro irakaslearekin kritika berriaz lan bat prestatzen hasi nintzenean adierazi niola nola euskaraz baziren eskuizkribu anitz oraindano argitaratu gabe zirenak. Uzteko kritika lan hura (Roland Barthesi buruz zen) eta lantzeko antzertiaren esparrua erantzun zidan» (Urkizu Sarasua d. g.: 22).

⁸ 10. zenbakian, 129-294 or. <https://errenteria.eus/herria/udal-argitalpenak/revista-bilduma/10-zk-1996/Errenteria>.

⁹ 18. zenbakian, 13-223. or. <https://errenteria.eus/herria/udal-argitalpenak/revista-bilduma/18-zk-2004/>

zuen euskararen batasunerako hain garrantzizko izan zen 1968ko Arantzatzuko Biltzarra ikus dezakegu gutun hauen bitartez. Hizkuntzalari ez ezik, literatur kritikari, kultur eragile nekaezin eta idazle aparta agertzeaz gain, bidenabar gutunotan jakintsuaren irudia samurberago egingen zaigu (Urkizu Sarasua 2004: 13).

Urkizuk aitortzen dien balioaz gain, bestelakorik ere badute idazlanok: Mitxelena «idazle apartaren» estiloan barrentzeko tresna ere badira, eta baita euskararen corpus landua osatzeko gai aukerakoa ere. Horretaz aritu nintzen EIZIERen 31 *eskutik* blogean, hiru sarreratan¹⁰ (Perez-Gaztelu 2013).

Amaitzeko, Patri Urkizuk *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* aldizkari honetan argitaratu zituen lanak ekarri nahi ditut. «Balada Apokrifoan eta kritikarien saltsa-maltsez» (Urkizu Sarasua 2003), «Jean Etchepare: Konplaintak 1873-1890» (Urkizu Sarasua 2010) eta «Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta *Linguae Vasconum Primitiae* (1545)-ren berriakurketa» (Urkizu Sarasua 2012).

Irailak 2.

Gaur 57 urte bete ditut [2003] eta goizeko zortzi eta erdietan azterketak banatu ondoren, aski egun lasaia aurretik. La Seine ibai ertzetako bukinistei begirada ematen diet, baina aspaldi da ez daitekeela ia deus interesgarririk aurkitu bertan. Balada zaharren peskizan nabil.

«Balada zaharren peskizan» zebilen Patri 2003 urtean (Urkizu Sarasua d. g.: 38), eta balada apokrifoak eta kritika lanari eskaini zien, hain justu, aldizkari honetako kolaborazio estreinakoa. Baina badu besterik lan horrek: Mitxelena maisuaren, eta Milagros Bidegain errenteriarren kritika-lanaren aitortza ere bada, filologian ere hain beharrezkoa den kritika-lan zorrotz eta zintzoarena.

Hauetako bi Andramendiko idazki apokrifoak bezala ezagunak, prosaz idatzitak eta 564 eta 748. urtekoak omen zirenak, baina Koldo Mitxelenak eta Milagros Bidegainek garbi utzi zuten, ordea, testuen faltsutasuna 1954ean. Fortuna gutxiko testua izan zen hau (Urkizu Sarasua 2003: 336).

Mitxelenak euskal ikerketan «gauzak bere lekuan jartzen zituen», datuak aztertuta, zientziaren parametroen —eta ez ameskerien— arabera neurtuta. Mitxelena eta Mitxelenaren mito-urratzearen adibide bat jo zuen begiz Patrik *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca* honetako langintzaren atariko. Zerbaiten seinale...

Koldo Mitxelenak, hizkuntzalari eta filologo zorrotz gisara azkenean jarri behar izan zituen gauzak bere lekuan, eta testuei beren jatorrizko esanahia eman «Contra Lekobide» (1986) izeneko artikulu gogoangarrian. Bertan frogatzen

¹⁰ «Hasiera» (<https://31eskutik.eus/2013/09/06/hasiera/>), «Agur eta adio» (<https://31eskutik.eus/2013/10/12/agur-eta-adio/>), eta «Barkatu» (<https://31eskutik.eus/2013/11/10/barkatu/>)

zuen argi eta garbi Lekobide ez zela izan erromantiko buru bero batzuen asma-
kizuna baizik, eta antroponimo bat izan ordez, lehen itzultzaileek ongi eman
zuten bezala beren ordainetan aditz bat zela (Urkizu Sarasua 2003: 338).

* * *

Oroitzapenezko lerroon bitartez, Patri Urkizu Sarasua irakasle, lankide,
lagunari eskerrak eman nahi dizkiot, eskolan eta eskolatik kanpo irakatsi eta
erakutsitako guztiagatik, eta baita euskal letren mandatarari izateagatik ere. Hor
nonbait sumatzen zaitut, Patri, paper zahar eske. Mila esker, bihotzez.

ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Altuna Bengoetxea, P. (1989) *Hitz bi*, in *Pierre d'Urteren hiztegia. Londres 1715*, Libk. I, 5–6. or., Donostia, Mundaiz.
- Mitxelena Elissalt, K. (1959) «Berriketan. Arnald Steiger irakasleak esan digu», *Egan*, 1(4), 3–5. or..
- Perez-Gaztelu, E. (2013) «Hasiera», *31 eskutik*, <https://31eskutik.eus/2013/09/06/hasiera/>
- Perez-Gaztelu, E. (2013) «Agur eta adio», *31 eskutik*, <https://31eskutik.eus/2013/10/12/agur-eta-adio/>
- Perez-Gaztelu, E. (2013) «Barkatu», *31 eskutik*, <https://31eskutik.eus/2013/11/10/barkatu/>
- Perez-Gaztelu, E. + Urkizu Sarasua, P. (arg.) (1990) *Patxi Altunari omenaldia*, Donostia, Deustuko Unibertsitatea.
- Urkizu Sarasua, P. (d. g.) *Patri Urkizu Sarasua. Lezo 1946 [Biobibliografia]*. <https://patriurkizu.eus/>
- Urkizu Sarasua, P. (1971) «Tresora hirur linguayetakua. Frantzesia, Española eta Heskudara. Obra ona eta necesaria nork desiratcen baitu erran den lengua je horrentzat», *ASJU*, 5, 175–191. or., <https://doi.org/DOI> <https://doi.org/10.1387/asju.7307>
- Urkizu Sarasua, P. (2003) «Balada Apokrifoan eta kritikarien saltsa-maltsez», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 9, <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.9.2003.5871>
- Urkizu Sarasua, P. (2004) «Koldo Mitxelenaren euskal gutunak (1951-1984) I, II, III, IV, V», *Bilduma*, 18, 12–223. or. <https://errenteria.eus/herria/udal-argitalpenak/revista-bilduma/18-zk-2004/>
- Urkizu Sarasua, P. (2010) «Jean Etchepare: Konplaintak 1873-1890», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 15, <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.15.2010.5975>

- Urkizu Sarasua, P. (2016) «Salamancan Koldo Mitxelenarekin», *Oarso*, 51, 119–125. or. <https://static.errenteria.eus/web/eu/herria/artxiboa/Oarso/Oarso2016/Articulos/Urkizu%20%28Salamancan%29.pdf>
- Urquizu Sarasua, P. (2012) «Bernat Etxeparen bizitza-garaiaz albiste gehiago eta linguae vasconum primitiae (1545)-ren berrirakurketa», *Revista de Lenguas y Literaturas Catalana, Gallega y Vasca*, 17, <https://doi.org/10.5944/rllcgv.vol.17.2012.6033>